



## UDAL INFORMAZIOA – 2017ko abuztua

Ondoko lerro hauetan herriko hainbat konturen berri eman nahi dizuegu.

## INFORMACIÓN MUNICIPAL – agosto 2017

A continuación os resumimos información sobre algunas cuestiones de interés

### ALKATE ALDAKETA

2015ean udal-taldea osatu genuenean, agintaldi erdian alkate aldaketa eginen genuela adostu genuen. Orduan solastu bezala, agintaldia bukatzeko gelditzen diren bi urteetan Mentxu Peña izanen da alkatea, eta alkate ordea berriz, Juan Miguel Almandoz.

### CAMBIO DE ALCALDE

En el año 2015 cuando formamos este gobierno municipal acordamos cambiar el puesto de alcalde a mitad de legislatura. Por ello, ahora, cuando ya han pasado dos años Mentxu Peña releva al hasta ahora alcalde Juan Miguel Almandoz que sigue como Teniente de Alcalde

### AUZOLANA

Gai honen inguruan, berriz ere oroitarazi nahi dizuegu auzolana egiteko asmoa duzuela Herriko Etxean jakinarazi behar dela. Honela, auzolanean dabilen bakoitzaren asegurua tramitatu eta auzolana nork egin duen jakinen genuke.

### AUZOLAN

Recordaros una vez más, que hay que avisar al Ayuntamiento cuando se vayan a realizar trabajos en Auzolan. Así, por una parte, podremos tramitar el seguro para cada participante y además, podremos saber quien está participando en el Auzolan.

### PARKEA

Haur parkean moto eta autoarekin norbait sartu eta ibili denez, ohartuak izanen zarete kate bat paratu behar izan dugula sarrera ixteko asmoz. Honen bidez, parkea denona denez, behar bezala errespetatu eta erabiltzeko eskatu nahi dizuegu.

### PARQUE INFANTIL

Habréis observado que hemos puesto una cadena a la entrada del parque infantil y no es por gusto ya que alguien ha entrado al mismo en coche y moto... Sobra decir que el parque no es particular por lo que debemos usarlo correctamente y respetarlo para sus funciones.

## ZAKURRAK

Gogorarazi nahi dizuegu zakurren jabe zareten guztion ardura dela herriko karriketan zakurrek kakarik ez egitea edo kaka horiek biltzea. Denon onerako herria garbi mantendu behar baitugu.

## HONDAKINAK

Jakinen duzunet, hondakinak bildu eta kudeatzeko enpresak badaude. Beraz, obratako hondakinak ezin dira ez mendian eta ez pista bazterretan bota.

## HERRIKO BESTAK

Abuztuaren 14tik 17ra ospatuko ditugun gure bestetako ekintzetan parte-hartzera gonbidatzen zaituztegu guztiak. Denok elkarrekin eta elkar errespetatuz ongi pasatzea nahi dugu. Urte guztian zehar bezala, bestetan ere herria zain dezagun, merezi du eta!

## GOIKO KARRIKA BESTETAN

Trafiko arintze aldera, herriko bestetan Goiko Karrika ibilgailuentzat noranzko bakarrekoa izanen da. Herrira sartzeko Goiko Karrikatik pasako gara eta herritik ateratzeko, berriz, Goienburutik pasa beharko dugu.

## PERROS

Reiterar una vez más a todas la personas dueñas de perros de la responsabilidad de respetar las calles y recoger bien las cacas que producen. Es tarea de todos y todas colaborar en la limpieza de nuestro pueblo

## BASURAS

Todos y todas sabemos perfectamente que existen empresas para recoger y gestionar los residuos generados en las obras. Por ello, insistimos en que no se pueden tirar en el monte o cunetas de las pistas este u otro tipo de residuos.

## FIESTAS PATRONALES

Queremos invitaros a participar en las actividades que se van a celebrar en las fiestas que este año celebraremos del 14 al 17 de agosto. Queremos poder disfrutarlos todos juntos con respeto mutuo. Como en el resto del año, cuidemos Arantza, lo merece!

## GOIKO KARRIKA DURANTE LAS FIESTAS

De cara a agilizar el tráfico durante las próximas fiestas, sólo se va a poder circular en una única dirección en Goiko Karrika. La entrada al municipio se realizará por dicha calle mientras que la salida será por Goienburu.





### ZUENA DA HITZA!

Xoko honetan udalari jakinarazi nahi diozuna paratu dezakezu: zure proposamenak, kritikak, hobekuntzak, iradokizunak, etab. Zure iritzia idatzi eta papera plazan honetarako espresuki paratu dugun ontziaren botatzen ahal duzue. Eskerrak aunitz zuen ekarpenengatik!



### ES VUESTRA LA PALABRA!

En este espacio puedes escribir todo aquello que deseas decirle a Ayuntamiento: sugerencias y proposiciones, críticas, mejoras...

Escribe y deposita el impreso en el buzón de la plaza que se ha instalado al efecto. Muchísimas gracias por vuestras aportaciones!!!

### IRADOKIZUNAK:



